

San José

Quién no ha escuchado la expresión “*Detrás de un gran hombre siempre hay una gran mujer*”; que, obviamente, tiene también su correlativo en “*Detrás de una gran mujer siempre hay un gran hombre*”. En medio de una cultura en la que se tiende a reivindicar la dignidad del propio género desde la contraposición, se hace más necesario que nunca subrayar el valor de la comunión y de la complementariedad.

Lo mismo cabe decir en cuanto a la experiencia educativa de los hijos se refiere: Lo que un niño necesita no es tanto una super-mamá o un super-papá, sino una madre y un padre que, aunque sean ‘corrientes’, se quieran mucho y de forma estable. Nuestra época, sin lugar a dudas, sufre grandes carencias en lo que respecta a la esponsalidad, la comunión, la integración de la maternidad y la paternidad....

La figura de san José resulta especialmente luminosa a la hora de entender la paternidad y la esponsalidad en toda su hondura antropológica. De hecho, en nuestros días son muchos los especialistas que hablan de la existencia de una profunda “herida paterna”, provocada, bien por la carencia de un referente paterno, o bien por una experiencia frustrante de paternidad.

Para muestra un botón: Recientemente, conocí el testimonio de una religiosa que trabaja apostólicamente en una cárcel de hombres en Perú. En su primer año en la prisión, a medida que se acercaba el Día de la Madre, muchos reclusos le pedían tarjetas de felicitación. A pesar de llevar cajas y cajas de tarjetas para que los presos se las enviaran a sus madres, nunca parecía tener suficientes. Así que, cuando se aproximaba el Día del Padre, decidió prepararse para una avalancha de solicitudes comprando una gran cantidad de tarjetas de felicitación. Pero, sin embargo, todas las cajas están todavía intactas esperando en su despacho. ¡Ni un solo preso le pidió una tarjeta para el Día del Padre!

La mencionada “herida de padre” responde a la existencia en todos nosotros de un “hambre de padre”, que se traduce en la necesidad de ser afirmado, aprobado, conocido, comprendido y amado por nuestro propio padre, y de crecer con un sentido de fuerza y autoridad, que, aunque no sea dominante, proporciona el tipo de estructura que permite a un niño crecer y desarrollarse. Cuando un niño no recibe este tipo de cuidado paterno, por los motivos que fuere, entonces el “hambre de padre” se convierte en la “herida de padre”. Obviamente, también existe la posibilidad de que se genere una herida materna, y cuando tal cosa ocurre suele ser aún más destructiva que la herida paterna; pero como se demuestra en el caso de la religiosa anteriormente referida, es mucho menos frecuente. Aunque la circunstancia referida de esa prisión peruana sea un tanto particular, acaso también nosotros debiéramos examinar el motivo por el que podamos percibir la figura del padre más lejana que la de la madre.

Por otra parte, la celebración de san José es una buena oportunidad para profundizar en nuestra devoción mariana desde la perspectiva de la sponsalidad. En efecto, no debiéramos referirnos a María sin tener en cuenta a José. De la mano de la mujer más maravillosa de la historia –María—, estuvo y está José. Dios Padre quiso que su hijo Jesús naciese y creciese rodeado de esa experiencia de comunión esponsal entre María y José. Si María y José fueron un “equipo” indisoluble mientras vivieron en Belén, Egipto y Nazaret; a buen seguro que continúan siéndolo en el momento presente en el Cielo.

Pero la figura de san José no se agota en la sponsalidad con María, sino que es designada como la “sombra” de la paternidad divina. El significado de esta expresión no hay que referirlo tanto a que san José viviese en la sombra, sino a que durante la vida oculta de Nazaret, fue para Jesús la sombra de la paternidad divina. En términos teológicos, podríamos decir que san José fue como una encarnación de la paternidad de Dios Padre. Sin olvidar que lo que san José fue para Jesús, es lo que cualquier padre está llamado a ser para su hijo: imagen visible de la paternidad de Dios. Y, por lo tanto, a san José no nos lo debemos imaginar en un rinconcito sin decir nada y pasando desapercibido, sino liderando la Sagrada Familia en comunión esponsal con María. De la misma forma que no existe una correcta mariología que no integre la figura de san José, sería incompleta una cristología en la que se ignore el influjo de su “paternidad”.

Pues bien, en la solemnidad de san José de este año 2021, confluyen por una parte la celebración del Año de San José, declarado por el Papa Francisco con motivo de su proclamación hace 150 como patrono de la Iglesia; y, por otra parte, el inicio de un año dedicado a la Familia, con motivo del quinto aniversario de la encíclica *Amoris Laetitia*.

San José, custodio de la Sagrada Familia, esposo de María, patrono de la Iglesia, patrono de los obreros, patrono de los seminarios, patrono de la buena muerte, patrono de fugitivos, patrono de los padres –especialmente de los padres adoptivos— ¡ruega por nosotros!

San José

Nork ez du entzun esaldi hau: “Gizon handi baten atzean beti izan ohi da emakume handi bat”; baina esaldi horrek badu bere parekoa: “Emakume handi baten atzean beti izan ohi da gizon handi bat”. Gure kultura honetan, norberaren generoaren duintasuna kontrajartzearen bidez aldarrikatzeko joera duen gure kultura honetan, inoiz baino beharrezkoago gertatzen da elkartasunaren eta osagarritasunaren balioa azpimarratzea.

Gauza bera esan daiteke seme-alaben hezierako esperientziari buruz ere; haur batek behar duena ez da super-amatxo edota super-aitatxo bat, ama bat eta aita bat baizik,

nahiz eta 'arruntak' izan, baina elkar asko maite dutenak eta era egonkorrean. Dударик gabe, gure aldi honetan gabezia handiak nabari ditugu ezkon-harremanei, elkartasunari edota amatasuna eta aitatasuna integratzeari... dagokienean.

San Joseren irudia bereziki argitsua gertatzen da aitatasuna eta ezkon-harremanak sakontasun antropologiko betean ulertzeko. Hain zuzen, espezialista asko ari da esaten, "aitatasun-zauri" sakona dagoela, eta hori aitaren erreferentzia falta izatetik edota aitatasunaren esperientzia txarretik datorrela.

Hara adibide bat: Duela gutxi, Peruko gizonezko-kartzela batean apostolutza-lana egiten ari den erlijiosa baten testigantza jaso nuen. Espetxeko bere lehenengo urtean, Amaren Eguna hurbiltzen ari zenean, gizonezko preso askok zorion-agurreko txartelak eskatu zizkioten. Txartelez betetako kaxa asko eta asko eramanean omen zituen presoek beren amei zorion-agurra bidaltzeko, baina ez ziren inoiz ere aski gizon haien nahiak asetzeko. Horrela, Aitaren Eguna hurbiltzera zihoanean, zoriontzeko txartel-kantitate handia erosi espero zuen eskari-pilarako prestatuz. Baina kaxa haiek guztiak ukitu gabe omen daude oraindik bere bulegoan noiz norbaitek eskatuko. Ez zen preso bat bera izan Aitaren Egunerako zorion-agurreko txartela eskatu zionik!

Lehen aipatu dugun "aitatasun-zauria" denok daramagun "aita-gosetik" sortzen da; denok nabaritzen dugun zerbait baita aintzakotzat hartua izatea, onartua, ezagutua, ulertua eta maitatua izatea geure aitaren aldetik; indartsu eta aginte-giro jatorrean haztea nahi dugu, ez noski era menperatuan, baina bai haurrari hazteko eta garatzeko egitura eta egokiera eskaintzen dion moduan. Haur batek aitaren gisa honetako zainketa eta arduraren izaten ez duenean, edozein dela ere horren arrazoia, orduan "aita-gosea" "aitatasun-zauri" bihurtzen da. Sor daiteke, jakina, amatasun-zauria ere, eta hori gertatzen denean, okerragoa izan ohi da aitatasun-zauria baino; baina aipatutako erlijiosaren kasuan ikus daitekeenez, askoz gutxiagotan gertatzen da hori. Lehen gogoratu dugun Peruko kartzelako gertaera berezi samarra bada ere, agian geuk ere aztertu beharko genuke, zergatik ote den geure aitaren irudia urrutiragotua ikustea amarena baino.

Bestalde, San Joseren ospakizuna egokiera ona dugu Ama Birjinaren debozioan, ezkon-harremanen aldetik begiratuta, sakontzeko. Izan ere, ez genuke Ama Mariaren aipamenik egin behar San Jose aintzakotzat hartu gabe. Historian izan den emakume miresgarrienaren –Mariaren– ondoan Jose egon zen eta dago. Jainko Aitak bere seme Jesus Maria eta Joseren ezkon-harremanetako elkartasun-esperientziatik sortua eta hazia izatea nahi izan zuen. Maria eta Jose "talde" bereizezina izan baziren Betleemen, Egipton eta Nazareten bizi izan zirenean, seguru horretan jarraitzen dutela orain ere Zeruan.

Baina San Joseren irudia ez da Mariarekiko ezkon-harremanetan agortzen, baizik eta jainkozko aitatasunaren "itzal" moduan adierazi ohi da. Esaldi honek ez du San Jose itzalean edota itzalia bizi izan zela adierazi nahi; alderantziz, Nazareteko isileko bizitzaldian jainkozko aitatasunaren itzala izan zela esan nahi du Jose Jesusentzat. Esamolde teologikoan esan genezake, San Jose Jainko Aitaren aitatasunaren

gizarteratze moduko bat izan zela. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, edozein aitak bere semearentzat izan behar duena izan zela San Jose Jesusentzat: Jainkoaren aitatasunaren begi-bistako irudi, alegia. Horregatik, ez dugu San Jose txoko batean, ezer esan gabe eta inor ohartu gabe dagoen norbait bezala irudikatu behar, Mariarekin ezkon-harremanetako elkartasunean Familia Santuaren arreta izanez dagoena baizik. Mariologia, San Jose barnean hartuko ez balu, zuzena izango ez litzatekeen bezala, era berean kristologia osatugabea geldituko litzateke "aitatasunaren" eragina alde batera utziko balu.

Horrela bada, 2021 urte honetako San Joseren festaburua, batetik, San Jose Urtearen barruan ospatua izango da, Frantzisko Aita Santuak, 2021 urte hau San Jose Urtea izatea erabaki baitu, San Jose Elizaren zaindaria aitortua izan zeneko 150. Urteurrena betetzen delako; eta, bestetik, Familiari eskainia dagoen urtearen hasieran ospatua, Amoris laetitia entziklikaren bosgarren urteurrena betetzen delako.

San Jose, Familia Santuaren zaindaria, Mariaren senarra, Elizaren zaindaria, langileen zaindaria, seminarioen zaindaria, heriotza onaren zaindaria, iheslarien zaindaria, aiten eta gurasoen zaindaria –bereziki aitatzako eta gurasotzakoena–, egizu otoitz gure alde!